

HERRI KIROLAK

2025



GUKA



SEIN

**ZUK ETA ZURE
ETXEAK
MEREZI DUZUEN
GUZTIA**



**BURDINDEGIA
BRIKOLAJEA
DEKORAZIOA...**

4-8

Luixa Uxkudun

10-11

Euskal Timber

12-17

Andoni Zubiaurre

18-19Eduki babestua:
Gipuzkoako Foru
Aldundia**20-21**

Probalekuak

22-26

Jon Ander de la Hoz

28-33

Klik

34-38

Martin Mendizabal

Argitaratzailea:

Urolako Komunikazio Taldea

Helbidea:

Soreasu 1

AZPEITIA

943-81 38 41

943-89 00 17

urolakosta@ukt.eus

GUKA
ZERBITZUAK



"SEGA OSASUNTSU DAGO, BAINA LANEAN JARRAITU BEHAR DA"

Luixa Uzkudun
SEGALARIA

Seme-alabak segan ikasten hasi, eta haiei begira piztu zitzaion grina Luixa Uzkuduni. 52 urterekin hasi zen segan Uzkudun, eta, orain, zazpi urte geroago, Euskal Herriko txapela behin baino gehiagotan janztera iritsi dela esan dezake. Jaiotzez errezildarra den arren, Leaburun (Gipuzkoa) bizi da eta Gaztelun (Gipuzkoa) ikasi zuen segan.

Nondik nora datorkizu segarako zaletasuna? Errezildarra izateak ba al du zerikusirik horretan? Horren guztiaren oinarrian baserria dago, eta ni errezildarra izanik, baserritarra ere banaiz, noski. Ez dago beste aukerarik Errezilen.

Noiz hasi zinen segan?

Segarekin lehenbiziko esperimentuak txikitan izan nituen. Aitarekin mendira joaten ginen anai-arrebok, eta hark segan egiten zuen. Aitak ez zidan segan egiten uzten, oso aldrebesa nintzelako. Anai-arrebak han ibiltzen ziren, baina niri eskuetatik kentzen zidan. Bai-

na, askotan, galarazten dizuten hori izaten da gehien egin nahi izaten duzuna; umea nintzen eta ez nuen gaizki hartzen, baina galarazitako hura hor gelditu izan zait beti. Segan ikasi, ordea, Errezildik kanpo hasi naiz, orain ikasi dut.

Eta hori?

Leaburura etorri nintzen bizitzera, eta seme-alabak ondoko herrian, Gaztelun, hasi ziren segan ikasten Joxe Gabirondo segalari famatuarekin. Txikitako oroitzapen haiek piztu zitzaizkidan, eta begia kendu gabe egoten nintzen haiei begira. Halako batean, Joxe

etorri zitzaidan, eta sega eskuetan jarri zidan. Probatu nuen, eta segituan galdetu zidan aurrez segan ibilitakoa al nintzen. Txikitan aitarekin mendira joaten gineneko kontu horiek kontatu nizekion, eta orduan ohartu ginen zergatik egiten nuen segan gaizki: ez kerra naizelako. Orduan, Joxe erakusten hasi zitzaidan: eskuinarekin bota eta ezkerrarekin tira. Sega berdina da, baina aldatzen dena teknika da. Horrela, bete-betean kargatu nintzen segara.

Nolako entrenamenduak egiten dituzu?



2023ko Europako Sega Txapelketan Euskal Herria ordezkatu zuen taldea. ALMITZA ELKARTEA

Normalean, taldeka egiten ditugu entrenamenduak. Etxeko hiru ibiltzen gara segan: alaba, semea eta hirurok. Gehienetan, batera aritzen gara, eta Almitza sega elkarteko kideren bat ere batzen zaigu. Gero, baldintza asko hartu behar izaten dira kontuan: belarra non da-

goen, nork duen, belarraren egoera, eguraldiarea... Beraz, nire entrenamendua belarra nork duenaren arabera antolatzen dut, eta joan eta serieak egiten ditut. Zer motatako lana dudan egiteko, horren araberrako entrenamenduak egiten ditut; adibidez, txapelketa ba-

terako, segan aritzen naiz, baina, bukaeran, beti serieak egiten ditut, motzak eta bortitzak. **Segan hasi zinenean, ikusten al zenuen zure burua txapelketetan parte hartzen? Hobekuntzarik nabaritu al duzu?** Izugarritzko hobekuntza antze-
man dut. Duela sei edo zazpi

Euskal sukaldaritzza



Eguneko menua
Astelehenetik larunbatera 12,50 eurotan

Sukaldaritzza tradizionala
eta egur ikatz parrila

Muniosoro 54, Oikia - ZUMAIA - 943-14 78 91

urte hasi nintzen, eta orduan, Joxek teknika erakusten zidan. Jarduteko esaten zidan; beraz, etxera joan eta segan jarraitzen nuen. Bi hilabetera edo, txapelketa batean emakumeak falta zirela eta, izena emateko eskatu zidan. Zoratuta zegoe-la pentsatu nuen. Seme-alabekin belardira joan nintzen, 35 metro koadro belar ebakitzeko asmoarekin. Lana amaitzea nuen helburu. Lortu nuen, txapelketarako izena eman nuen, eta ez nuen azken postuan amaitu. Horrek indarra eman zidan, eta hurrengo urteko txapelketa iritsi zenean, helburu handiagoak jarri nizkion neure buruari. Nahiko ondo joan zen, eta asko hobetu nuela konturatu nintzen. Handik gutxira, Euskal Herriko txapela lortu nuen. Ordutik, lehen eta bigarren postuetan ibili naiz. Hori bai, aritu ere asko egiten naiz; mendira joateko tarte izanez gero, segan egiten dut.

Europako Sega Txapelketan izan zara bitan, Euskal Herria

ordezkatzten. Zer moduzko esperientzia izan da?

Beste mundu bat da hura. Euskal Herrikoak kenduta, txapelketa horietan parte hartzen duten guztiak Alpeen inguruko dira, eta segan egiteko beste teknika batzuk dituzte. Askok ikasi dut haiengandik. Txapelketetatik bueltan, etxera iritsi eta haien bideo asko ikusi izan ditut, eta horri esker, uste dut asko perfektionatu dudala nire teknika. Gauza txikiak dira, baina asko. Esperientzia gisa ikaragarria izan da txapelketa horietan parte hartzea: haien ondoan segan egitea, jendea ezagutzea, mahai bueltan hitz egitea... Gainera, txapelketa horiei esker, erronkak antolatu ditugu. Duela bi urte adibidez, austriarren aurka egin genuen. Horrek guztiak harrotu bezala egiten gaitu, emozionatu. Gainera, Euskal Herria ordezkatzeko ari zara, eta hori, batzuetan zama ere baden arren, ikaragarriko oparia da. Gainera, dudana kontuan hartuta,

30 urte inguruko nesken aurka aritu behar izaten dut, eta haien aurretik gelditzea izugarria izaten da niretzat.

Askok ikasi al duzu esperientzia horietatik?

Bai. Gainera, euskal sega ere erakutsi diegu guk. Gaur egun, adibidez, euskal segak ez ditugu erabiltzen, austriarren antzeko segak erabiltzen ditugu. Euskal sega pisutsuagoa da, material gehiago du, zabalagoa delako. Hangoak estuak dira, arinagoak.

Sega, batez ere, gizonen kirola izan da. Zer nolako harrera izan zenuen zuk?

Ni segan hasterako jendeak elkar ezagutzen zuen, helduak zein gazteak. Ni, hasi orduko, antolakuntzan hasi nintzen, eta talde giro bikaina aurkitu nuen. Bazkariak eta afariak egiten ditugu, edozein izan daiteke kafe bat hartzeko laguna, eta denak dira ongietorriak. Pixka bat arraroa izan zen nire adinarekin esparru horretan sartzea; izan ere, helduak daude eta gero erre-





leboa hartzen duten gazteak datoaz; baina oso harrera ona izan dut.

Nola ikusten duzu emakumeen etorkizuna segan?

Oso ondo; are gehiago, esan dezaket, azkenaldian, Europan, emakumeek gizonak baino salto handiagoa eman dutela. Hau da, mutil baino neska gehiago hasi da segan. Orain dela gutxi, adibidez, 60 urtetik gorako bi emakume azaldu dira, inoiz txapelketetan parte hartu gabeak, eta nola egin segan! Bi emakume horiek, ziurrenik, baserritarrek izango dira, bizitzan guztian zehar lanean jardun direnak eta ez dutenak aitorpenik izan. Euskal Herrian ere horixe gertatu izan da; baserrian edozein gizonak adina edo gehiago jardun, baina, gero, baserritarra, gizona izan. Izugarrizko poza eman zidan bi emakume haiek ikusteak.

Errezilen ere izango dira horrelako emakumeak.

Bai, noski, segan oso ondo egiten dutenak badaude, eta lehiaketetan parte hartzera animatuko nituzke, lekua badutelako, eta giro oso ona aurkituko dutelako. Lotsarik gabe, etor daitezela. Dakiten hori egitea besterik ez dute, eta ziurrenik, niri hamar buelta emango dizkidate.

Sega osasuntsu dagoela esan daiteke, beraz?

Bai, sega osasuntsu dago, baina lanean jarraitu behar da, orain arte bezala. Gazteluko sega taldean hamabost gazte inguru daude; horien guraso gehienak kaletik etorri dira baserrira edo landa eremura bi-

zitzera, eta fruituak ikusten hasi gara dagoeneko. Gazte horietako bat Alemanian, Bavarian, izan da lehiatzen, eta hirugarren amaitu du. Segan egiteko tradizioari eutsi beharra daukagu etorkizunean ere.

Eta zeintzuk dira zure asmoak?

Jarraitzea. Esaten diet ingurukoei, bigarren egiten jarraitzen badut, segarekin segitu egingo dudala. Azkena amaituko banu, beste gauza bat izango litzateke. Beraz, osasunak laguntzen didan bitartean, jarraitu egingo dut. Udan segan egiten dut, eta neguan, crossfit. Saiatzen naiz sasoian egoten, gorputza puntuan mantentzen, eta oraingoz, ondo sentitzen naiz, aurrera egiteko gogoz. Lanetik nazkatuta aterara ondoren, gozatu egiten dut segan, eta zerbait behar dudala sentitzen dudanean, segan aritzen naiz, eta hori behar nuela sentitzen dut. Askotan dit segak. ■

"Saiatzen naiz sasoian egoten, gorputza puntuan mantentzen, eta oraingoz, ondo sentitzen naiz"

ARIMAR



PAGO EGURREZKO SU ERREGAIK

Denoigustatzen zaigu su on baten inguruko gozotasuna, baina horretarako kalitatezko egurra behar da. Guk geuk ekoitzitako neurri guztietako egur zati eta zanpatutako txirbil briketak bakarrik banatzen ditugu. Egurraren hezetasun maila egokia ere ezinbestekoa da ondo erreko bada, eta instalakuntza berezien bidez, %20 azpitik uzten dugu Europan eredu diren enpresen gomendioak jarraituz.

943-81 10 41

WWW.ARIMARSL.COM



TRADIZIOTIK BERRITASUNERA: EUSKAL TIMBER

Herri kirolak iraganeko gauza bezala ulertzen dituenik bada, baita eguneratu ezin direla pentsatzen duenik ere, baina hori horrela ez dela frogatzera dator Euskal Timber txapelketa berria.

Testua: **Unax Larrañaga.**
Argazkia: **Unsplash.**

Aizkora eta trontza urte luzez izan dira herri kiroleko modalitate esanguratsuak; bada, Euskal Timber txapelketak bi horiek uztartu ez ezik, motozerra ere gehituko dio lehiari. Gari Etxeberria antolatzaileak azaldu duenez, Stihl Timbersports Series mundu mailako txapelketa nagusia Euskal Herrira ekartzeko grinak eman dio Euskal Timber txapelketa antolatzeko ideia. "2011. urtera arte hemengo kirolari batzuk, Larretxeak, Olasagastik eta arriatarrek, esate baterako, hartu zuten parte txapelketa hartan. Urte hartan kirolariak antolatzaileekin izandako liskar baten ondorioz edo, eten egin zen harreman hori, eta Espainiako Estatuan egiteari utzi egin zioten, hemengo kirolariak parte hartzeko aukerarik gabe utzita", azaldu du Etxeberriak.

Txapelketa motza eta ekitaldi bizi nahiz zirraragarri bat egitea nahi izan dute antolatzaileek, ikusleei zerbait "berria eta berezia" eskaintzeko asmotan. "Stihlekin kontaktuan jarri nintzen, eta bilera batzuk egin ondoren lortu genuen 2011n moztu zuten hari hari jarraipena ematea", dio Etxeberriak. Horrela, 25 bat kirolariarekin harremanetan jarri zen, eta "belaualdi aldaketa" ikusi dutela dio. Txapelketan bertako kirolariak parte hartuko dute eta, gainera, parte hartze horrek bidea irekiko die nazioartean antolatzen dituztenetan lehiatzeko, eta horrela, lehengo egoera hartara bueltatzeko. Behin sailkatuta, kirolari bakoitzaren trebeziaren arabera izango da nazioarteko txapelketetan aurrera egitea. "Iker

Vicente edota Eneko Saralegi ibili izan dira aurretik, baina orain 25 kirolariri aukera eman zaie beraientzat berria den modalitate honetan proba egin dezaten".

Hamasei kirolari sailkatuko dira abenduaren 20an Zarauzko Aritzbatalde pilotalekuan jokatu den final handira. Horretarako, lehen fasean dauden 25 kirolariak azaroaren 15ean egingo den ate itxiko kanporaketa saioan izango dute norgehiagoka, erlojuaren kontrako proba bategan.

Finaleko saioan, berriz, hamasei horietatik bi gelditu arte lehiatuko dira, eta bi horiek jokatu dute finala. Kirolariak motozerrarekin mozketak bat egin beharko dute; jarraian, aizkorarekin egurra etzanda jarrita; ondoren, trontzan; eta azkenik, aizkorarekin, bertikalean. Arau guztiak bete eta denbora onena egiten duena sailkatuko da ondorengo txandara. "Arau zorrotzak izaten dira txapelketa hauetan eta hutsegite txiki bat nahikoa da deskalifikatua izateko".

Zarauzko finalerako sarrerak Internet bidez izango dira salgai *euskatloia.com* webgunean, eta izen handiko kirolariak ariko dira lehian. Hiru aldiz munduko txapeldunordea den Iker Vicente otsagabiarra (Nafarroa) ez ezik, Urola Kostako hainbat aizkolarik ere parte hartuko dute,

Hamasei kirolari sailkatuko dira abenduaren 16an Zarauzko Aritzbatalde pilotalekuan jokatu duten final handira

hala nola, Mikel Larrañaga azpeitiarrak eta Julen Alberdi Txikia IV.a azkoitiarrak.

Kirolariak bi campus edo topaketa egin zituzten irailean, Otsagabian bata eta Zumarragan (Gipuzkoa) bestea. "Campus horiek kirolariei arauak erakusteko eta teknika hobetzeko baliatu ditugu. Badirudi erraza dela motozerrarekin ebaketa bat egitea, baina ñabardura asko ditu frogak, eta erraz egin daiteke akats bat". Inoiz aritu gabeko proba horietara egokitzeko eta entrenamendu gisa baliatu dituzte egindako bi topaketa horiek.

Aritzbatalden egingo den finaleko ekitaldira jende andana bertaratzea espero dute antolatzaileek, "erakargarria, agresiboa eta berria" den ekitaldia izango baita. Maila handiko kirolariak ikustearen "morboak" ere positiboki eragingo diela adierazi du Etxeberriak. "900 lagun inguru sartzen direla uste dut, eta jendea kalean geldituko dela iruditzen zait. Harrera ona espero dugu". Aurretik ere duatloi nahiz pentatloiak antolatzen badu esperientzia Amasako (Gipuzkoa) bizilagunak.

Herri kirolen mundua "indartsu" ikusten du. Nahiz eta Luis Mari Bengoaren erretiroak "ziurgabetasuna" sortu duen, bada bere lekukorik kirol ikuskizunak antolatzeko orduan. "Aizkolariek ez dira geldirik egoten urte osoan, eta sekula baino kirolari gehiago mugitu den sentsazioa daukat", dio. "Herri kirola indartuta dago, duela bospasei urte inguru gorakada berri bat jaso zuen eta indartsu jarraitzen du. Jendeak gauza berriak probatzeko gogoia du". ■



**"MINEAN
PENTSATZEN
HASIZ GERO,
EZ DUZU EZER
EGITEN"**

Andoni Zubiaurre
TXINGALARIA

Testua: **Unax Larrañaga.**
Argazkiak: **Unax Larrañaga**
eta **utzitakoak.**

Andoni Zubiaurre *Gorixo*-k (Mutriku, 1984) ez daki geldirik egoten. Harri jasotzen, sokatiran, arraunean, txingetan eta trontzan behintzat ibilia da Zumaiaiko bizilaguna, eta herri kirolen munduan bete-betean sartuta egon da haurra zenetik. Urriaren 11n Agustin Uranga *Billabier*-ek duela 40 urte jarritako marka hautsi zuen Arroabea, 27,4 kiloko txingekin 102 plaza osatuta. 75 egin zituen Urangak. Mekanikaria da Zubiaurre ogibidez, eta baserrian nahiz zezenekin lanean ibilitakoa da. Eskuekin lan egiteak asko lagundu diola uste du, baita burua lantzeak eta kontzentratzen ikasteak ere.

Nola hasi zinen kirola egiten?

Harri jasotzen hasi nintzen lehenbizi; nire osabak harriak egiten zituen, eta Iñaki Perurena mitikoaren entrenatzaile izan zen. Hark bultzatu ninduen harri jasotzen eta bertan egin nituen nire lehen pausoak.

Beraz, txikitatik aritu izan zara herri kiroletan.

Bai. Nire aita ere bere garaian idi probetan ibili zen, aizkoran ere bai, txingekin ere zerbait bai... Beraz txikitatik ikusi izan dudana gauza bat izan da. Apustueta ere joaten ginen.

Zein kiroletan jardun duzu zeuk?

Harriarekin hasi nintzen. Urte eta erdi inguruz jardun nuen, baina gorputz txikia nuenez, txapelketetan hasi ginenean ez nintzen iristen mailara, eta utzi egin nuen. Horren ondoren, Mutrikuko sokatira taldekoek deitu zidaten. Hiru urte egin nituen han. Sokatiraz aparte, erakustaldiak egiten genituen txapelketarako dirua lortzeko, eta horretarako, bakoitza kirol

batean espezializatu zen. Hamabost inguru ginen, eta nik txingetan nuen erraztasuna. Baserritik datorkit erraztasun hori. 30 litroko bidoiak eramaten genituen ardiak eta ahuntzak genituen txaboletara, eta ikusi nuen nahiko ondo moldatzen nintzela haiekin. Horrela hasi nintzen txingekin probatzen. Txinga txapelketetara joaten hasi nintzen sokatiran jarraitzen nuen bitartean. Ondoren, bost urte egin nituen arraunean Telmo Deunen.

Zenbat denbora daramazu txingetan?

Bi etapa izan ditut. Lehenengoa 2007tik 2010era, hiru urte inguruko, eta bigarrena, gaur egungoa, duela bi urte eskas hasita. Utzita izan nuen, baina beti nuen harra barruan. Lehen egiten nituen markekin, maila handiagoa zegoenez, gaur egun txapelen bat aterako nuela pentsatzen nuen. Emazteari beti berdina esaten nion, eta hark esan zidan proba egiteko. Ez du denbora gehiegi ere

eskatzen, arraunak edota mendi maratoiak bezala, eta saiakera bat egin nuen. Horrela hasi nintzen, eta orain daramadan denbora honetan, Euskadiko txapeldunorde izan naiz eta Bizkaiko bi txapel ere baditut. Bere fruituak eman ditu saiakerak.

Erreferenterik izan al duzu?

Txingetan, bai. Lasturko gizon bat, Juan Jose Agirregabiria *Arruan*. Txapel pila bat zituen, bai Gipuzkoakoak eta bai Euskadikoak. Azken urteotan, berriaz, Kerman Perez de Heredia arabarra izan dut laguntzaile. Hark esan dit zer entrenamendu mota egin eta hari esker irabazi ditut txapelak.

Nolakoak izaten dira txapelketak?

Bi modalitate izaten dira, gizonena eta emakumeena. Gizonetan, kirolari bakoitzak 50 kiloko txinga bana eraman behar izaten du esku bakoitzean. Lehenbizi, eskuak xaboiarekin garbitu behar izaten dira epailearen aurrean, eta gero, es-

kalatzeko erabiltzen den magnesioa ematen uzten dizute. Ondoren, txingak heldu, eta aurrera joaten zara txingak eskuetatik erortzen zaizkizun arte. Emakumeen kasuan, gauza bera izaten da, baina pisu gutxiago erabiltzen dute. Orain arte 25 kiloko txingak erabili izan dituzten arren, Bizkaian 35 kiloko txingekin egiten hasi dira, pixka bat berdintzeko asmoz, bestela txapelketak oso luzeak egiten baitziren. Orokorrean ez du misterio handirik, heltzeko orduan dago teknika. Hatz lodia heldulekuaren azpira sartzeko ohitura izaten dugu, preso utziz. Mina ematen du, gehienbat 50 kiloko txingekin, baina askoz hobeto helduta gelditzen da eta denbora gehiago irauten duzu.

Erresistentzia kontua da, beraz?

50 kilokoak ibiltzeko indarra ere behar da; gorputza landuta izan behar duzu. Nik, adibidez, azken urte hauetan ez dut amaitu txapelketarik eskuak zabaldu zaizkidalako, guztiak

pisuagatik izan dira. Ez naiz mutil handia, 78 kilo inguru pisatzen ditut, eta txapelketako arinena ni naiz, horregatik nire kasuan gorputzak mugatzen nau. 50 kilokoak ibiltzeko eskuetan indarra behar da, baina gehienbat muskulatura eta oinarri sendo bat edukitzeak laguntzen du. Adibidez, Arroa-beko txapelketarako bai behar zirela erresistentzia, eskuak eta burua.

27 kilokoak ziren horiek, ezta?

Bai, 27,4 kilokoak zehazki. Azkarrago ibili behar da haiekin. Gorputzak eta eskuek denbora mugatu bat aguantatzen dute azkenean, eta pisu arinagoarekin ahalik eta azkarren joaten saiatzen gara, metro gehiago egiteko.

Nolakoa da entrenamendua?

Astean behin txingekin entrenatzen dut, 26 kiloko batzuekin. Astean bitan berriz pisuak altxatzen hogeitun egiten ditut, eta ergometroan beste hogeitun egiten ditut. Ergometroarekin guztia lantzen duzu: besoak, hankak, gerria... 50 kilokoekin

izaten diren txapelketetarako ere 26 edo 35 kilokoekin entrenatzen dut. 50 kilokoek gorputza asko zigortzen dute, beraz nahiago izaten dut txapelketetara osasuntsu iritsi eta lesioak saihestu. Lau aldiz soilik heltzen ditut 50ekoak txapelketen aurretik. Lehen askoz gehiago heltzen nien, baina giharrei dagokienez asko kaltetzen ninduten eta, gainera, gutxiago irauten nuen gero lehiatzerakoan. Emaiz hobekien ditut pisu txikiagoekin eskuak landutakoan.

Nola lantzen dituzu eskuak?

Etxean badiut malgukiekin eskuak lantzeko erabiltzen diren tresnak, baina ez ditut asko erabiltzen. Mekanikaria naiz; beraz, lanean ere eskuak asko erabili izan ditut beti. Bulego batean lana egin banu, agian beharko nuke gehiago lantzea, baina ez da kasua. Azkenaldian eskumuturrekoak jartzen ditut lehiatzean eta horiekin, izerdia eskuetara pasatzen ez denez, denbora luzeagoan irautea lortzen dut. Horrelako gauzak



The advertisement features two cartoon chickens on the left, one holding a broom and the other a dustpan, cleaning up feed. In the center is a logo for 'Euskaber' with a green 'e' and the word 'Euskaber' in green. Above the logo is a small illustration of a farm with a house and several chickens. Below the logo, the text 'BASERRIKO ZURE ARRAUTZAK' is written in orange. At the bottom, the text 'JAN OSASUNTSU, ELIKATU BERTAKOAREKIN' is written in green.



ikasten joaten zara denbora-
rekin, eta asko laguntzen dute.
Trontzan ere lehiatutakoa zara.
Bai, sokatira utzi nuenean, Men-
daroko lagun batek deitu zidan
ea trontzan berekin hasiko
nintzen galdetzeko. Maila han-
dia zegoen garai hartan eta ez
genuen txapelik lortu. Duela

sei urte beste lagun batek dei-
tu zidan txapelketa batean
lagunduko al nion galdetzeko,
eta uste baino askoz hobeto
egin genuen. Bere ohiko biko-
tea utzi zuen eta nirekin hasi
zen lehiatzen. Bizkaian federa-
tu nintzen garai hartan, eta
lehiakideen maila lehengoena

baino eskasagoa denez, azken
bost urteetan lau txapel lortu
ditugu.

Nolakoa da trontzan lehiatzea?

Jendeak uste du indarra behar
dela, baina teknika handia es-
katzen du. Mozketa bat gero
eta finagoa izan, orduan eta
errazagoa da egiteko. Mozten



duzun zatia 2,5cm baino handiagoa bada, baliogabetzat ematen dute. Enborra tente moztea ere zaila da, orduak eskatzen ditu teknika lantzeak. Entrenatzeko, txingetan egiten dudanaren antzekoa egiten dut, astean behin edo bitan trontzan eginez. Gehienbat zutik moztzen saiatzen gara entrenamenduetan, hori baita guretzat zailena. Azken finean, bikotearekin ohitu behar zara eta ezagutu egin behar duzu. Esateko, aurreko batean, larunbatean txingetan lehiatu nintzen eta igandean trontzan, eta besoak oso nekatuta nituenez, beste bikotea askoz indartsuagoa zen gu baino. Hala ere, denbora gutxi zera-maten batera, eta aurre hartu genien gu elkarrekin ohituta geundelako. Bikotea ezagutzea oso garrantzitsua da.

Herri kiroletan zer da beharrezkoagoa: indarra ala teknika?

Biak behar dira. Inoiz ezin da izan bata edo bestea, beti biak. Indarrik ez baduzu, tek-

nika alferrik da, eta teknikarik gabe, indarra alferrik da. Gimnasioko jendea etortzen denean txingetara, izugarrizko indarra izaten dute, baina teknikarik ez, eta eskuak segituan askatzen zaizkie, ez daude ohituta bost minutu irautera 100 kilo eskuetan hartuta. Potentzia lantzen dute, baina ez erresistentzia. Trontzan ere orduak sartu behar dira, eta bikotearekin entrenatu. Hasi ginenean, lehenengo txapelketan, hiru fase zeuden. Lehenengoan, azkenak geratu ginen, baina hurrengo bietan, bigarren sailkatu ginen. Elkar ezagutu behar da, talde lana da trontza.

Agustin Uranga Billabier-ek duela 40 urte jarritako marka hautsi zenuen urrian, Arroabeen.

Bai. Egia esan, aurreko astean laneko ikastaro bat izan nuen Bilbon, eta jarraitzeko astuna zenez, deskonektatu egiten nuen eta erronkarekin pentsatzen hasten nintzen. Etxean hobetua neukan marka, hiru

aldiz, baina eguna gerturatu ahala tentsioa handitzen joan zitzaidan, eta katarroarekin ere ibili nintzenez, banuen kezka pixka bat. Erronka hasierakoan, hankak kargatuta sentitzen nituen, eztarria lehorra, listua botatzen ibili nintzen... Hala ere, izerdi pixka bat bota nuenean, askoz hobeto sentitu nintzen. Lehenbiziko helburua marka haustea zen, baina ikusi nuenean ongi ari nintzela, eta ahal nuen gehien egiten saiatu nintzen. 75 plaza egin zituen Billabierrek, eta 102 osatzea lortu nuen nik. Aurrekoan jakin nuen, Urangak marka hura egin zuen egunean, trontzan eta sokatirari ere egin zuela. Ziur nago txingak bakarrik egin izan balitu, berak ere 100 plaza inguru egingo zituen. Oso gizon indartsua omen zen hura, 30 urterekin 1,85 metroko altuera eta ehun kilo inguruko pisua omen zituen, baserrian lana eginda onduak.

Esan duzu buruak eragin handia duela. Zertan pentsa-

ERAIKUNTZARAKO MATERIALEN SALMENTA
MAKINERIA IGOGAILUEN ALOKAIRUA

LOREO, S.L.



HERRI KIROLEKIN!

Orendaundi kalea, 10 behe • AZPEITIA • 943 15 04 56

tzen duzu txingetan lehiatzen ari zaren bitartean?

Hasieran, hatza azpian izateak mina ematen du; beraz, lehenengo, min horretan ez pentsatzen saiatzen naiz. Familia, mendia edo beste edozer gauzatan buruan izaten ahalagintzen naiz. Ondoren, hamabost minutu pasatzen direnean, eskuak inurritu egiten zaizkit. Une horretan, eskuak mugitzea-edo pentsatzen baduzu, zabaldu egiten zaizkizu; beraz, beste gauza batzuetan pentsatzen saiatzen naiz. Aurrekoan, adibidez, zazpietako kanpaiak entzun nituen. Jendearen animoak ere entzuten ditut. Ez dut pentsatzen ea ondo heldu al diedan txingei edo eskuak nola ditudan; horrela hasiz gero, askatu egiten ditut txingak. 50 kilokoekin lana motzagoa denez, zentratu egiten zara egiten ari zaren horretan, baina horrelako lan luze batean burua beste leku batean izan behar duzu. Minean pentsatzen hasiz gero, ez duzu ezer egiten.

Osasuntsu ikusten al dituzu herri kirolak gaur egun?

Duela gutxi erretiroa hartu duen Luis Mari Bengoa izan da herri kirolen sustatzaile nagusietako bat txapelketak antolatzeko orduan, eta herri kirolari ugari atera ditu hark, aizkoran eta harri jasotzen nagusiki. Orain, hura jubilatuta dela eta, ziurgabetasun puntu bat badago erantzukizun hori nork hartuko ote duen. Jendea ari da formatu berriak egin nahian, proba motzago eta azkarragoekin probatzen. Adibidez, aurtan, lehenbizikoz, Euskal Timber lehiaketa antolatu dute, eta oso polita iruditzen zait. Harri jasotze munda, adibidez, osasuntsu dago. Jende asko hasi da; maila oso onean, gainera. Paulo Azpiazu eta Ainitze Zumeta, esaterako; sekulako maila dute. Aizkoran ere bada jendea, baina, agian, gaur egun plaza gutxiago daudela esango nuke. Gainera, aizkorak lan handiagoa du, egurra erostea barne. Txingak eta bestelako kirolek,

berriz, boladak izaten dituzte. Izan dira hiru partaiderekin jokaturako txapelketak, eta hurrengoan bederatzia lehiakide izan direnak. Askotan herri kirol taldeek osatzen dituzte txapelketa horiek. Ea formatu berriek jende gehiago erakarzen duten.

Zein bidetatik eramango zenuke gaur egun herri kirolak hasi nahi duen gazte bat?

Esango nuke jendeak herri kirolak asto lanarekin eta lesioekin lotu ditzakeela, baina, gaur egun, modu asko daude hasteko, pixkanaka-pixkanaka. Gainera, herri kirol taldeak eta eskolak daude. Horietan hasiz gero, asko dakien jendea izango dute irakasle, eta behar dituzten laguntza zein baliabideak emango dizkiete. Lesioak saihesteko onena teknika ongi ikastea da. Gainera, komunikabideek kirolaren mundua jendearengana iristeko egiten duten lana ere oso garrantzitsua izan da, eta polita da jendea interesarekin ikustea. ■







SUKALDEAK

Hegoalde 8 (Eroski ondoan)
943-83 52 57

ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

San Frantzisko 3
943-83 49 60

ZARAUTZ





www.inakisukaldeak.com • inakisukaldeak@gmail.com • 



"HERRI KIROLAK ERE BERDINTASUNAREN ALIATU IZAN DAITEZKE"

Goizane Alvarez
GIPUZKOAKO KULTURAKO ETA KIROLETAKO
DIPUTATUA

**Herri kirolen historiaz eta
egungo egoeraz hitz egin du
Goizane Alvarez diputatuak.**

Gipuzkoan, herri kirolak aspal-diko tradizioa dira. Gaur egun, zein da herri kirolen errealitatea lurraldean? Indartsu daudela esango al zenuke?

Bai, indartsu daudela esango nuke, eta bizirik. Herri kirolak gure herriaren kultur ondarearen parte dira, baina ez dira iraganeko oroitzapen bat: gaur egun ere bizirik daude eta belaunaldi berrien artean interesa pizten ari dira. Horretan, funtsezkoa da federazioek, kirolariek eta tokiko erakundeek egiten duten lana, eta Aldundiaren konpromisoa ere bai, sustapenean eta transmisioan laguntzeko.

Herri kirolek gipuzkoarren identitateari lotutako balioak sustatzen dituzte. Zer balio dira horiek?

Herri kirolek gure nortasunaren oinarrian dauden balioak islatzen dituzte: lana, ahalegina, elkarlana eta komunitatearen indarra. Indibidualismoaren aurrean, herri kirolek taldearen eta auzolanaren logika aldarrikatzen dute. Hor dago gure kulturaren muina: elkarrekin egitea, errespetua, eta tradizioaren bidez gure izaera kolektiboa berrasmatzeko.

Gipuzkoaren nortasunean zer rol betetzen dute herri kirolek?

Rol garrantzitsua eta berezia dute. Herri kirolak ez dira soilik kirol jarduera bat; gure hizkuntzarekin, gure lurraldearekin eta gure historiarekin lotzen gaituen espresio bat dira. He-

rri kirolak Gipuzkoaren nortasunaren ikur dira, eta munduaren aurrean gure kultura propioaren adierazle ere bai.

Herri kirolak gure historiari, iraganari, lotutako praktika bat dira, baina nola ikusten duzu haien etorkizuna?

Nik uste dut herri kirolen etorkizuna bermatuta dagoela. Tradizioak bizirik jarraitzeko egokitu egin behar dira, eta herri kiroletan hori gertatzen ari da: belaunaldi berriak modu naturalean ari dira hurbiltzen herri kiroletara, emakumeek gero eta presentzia handiagoa dute, eta federazioak berrikuntza eta hezkuntza uztartzen ari dira. Gure historia eta herri kirolak ez dira museoan gordetzeko zerbitz; gure etorkizunaren parte dira.

Herri Kirol Federazioarekin elkarlanean aritzen da Gipuzkoako Foru Aldundia. Zer bide ari zarete jorratzen?

Oso harreman estua eta etengabeko elkarriketa dugu federazioarekin. Gure helburua da herri kirolak modu iraunkorrean sustatzea, bai lehia-keta arloan, bai hezkuntza eta transmisio arloan. Proiektu zehatzak ditugu gazteen artean herri kirolak ezagutarazteko,

"Transmisioa da gakoa: herri kirolak belaunaldi batetik bestera pasatzea, baina eraberrituta"

eta azpiegituren eta ekitaldien antolaketan ere laguntzen dugu. Gainera, berdintasuna eta segurtasuna oinarri hartuta ari gara lanean, herri kirolak denontzat irekiak izan daitezen.

Gero eta emakume gehiago aritzen dira herri kiroletan. Berdintasunaren bidean, urratsak egiten ari al zarete?

Bai, eta oso pozgarria da. Emakumeek herri kiroletan izan duten presentzia historikoki ikusezina izan da, baina gaur egun gero eta emakume gehiago ari dira parte hartzen eta ikusgarritasuna irabazten. Horrek erakusten du aldaketa sozial eta kultural bat ematen ari dela. Aldundia, berdintasunaren aldeko politiketan oinarrituta, Federazioarekin batera lanean ari da emakumeen parte hartzea sustatzeko eta eredu berriak bultzatzeko. Herri kirolak ere berdintasunaren aliatu izan daitezke.

Herri kirolak bizirik eta osasuntsu mantentzeko gakoa zein dela esango zenuke?

Transmisioa da gakoa: herri kirolak belaunaldi batetik bestera pasatzea, baina eraberrituta. Hezkuntza, berdintasuna eta komunitatea dira giltzak. Herri kirolak gure herriaren bihotzean daude, eta bizirik jarraituko dute baldin eta guztion artean zaintzen baditugu. Horregatik, aldundian lanean jarraituko dugu herri kirolen alde, gure iragana eta gure etorkizuna elkar elika daitezen. ■

PROBALEKUAK, PAISAIAREN PARTE

Urola Kosta eskualdea herri kirolei estuki lotuta izan da historikoki, eta kirol horiek urteetan zehar hauspo handiagoa ala txikiagoa izan badute ere, pizkunde moduko bat nabari da gaur egun gizartean. Izan ere, gimnasioak bete-bete eginda dauden sasoi honetan, gero eta gehiago dira areto barruetatik kanpora atera eta herri kiroletarako urratsa egin dutenak.

Historia jendeari ez ezik, lekuei ere oso lotuta egon ohi dira, eta nabariak dira gure eskualdean herri kirolari lotutako hainbat gune. Probalekuak dira horren erakusle, herri askotako plazak galzada harriz jantzita baitaude, gune horietan askotako herri kirolak praktikatu izan diren seinale. Besteak beste, Aian, Aizarnan, Aizarnazabalen, Azkoitian, Azpeitian, Errezilen, Narrondon eta Zestoan aurki daitezke probalekuak. Batzuk gehiago eta besteak gutxiago erabiltzen dira egun, baina gure paisaiaren parte dira oraindik. Ezagutu ditzagun horietako batzuk!



Aia

Aian dago Urola Kostan gaur egun garrantzi handiena duen probalekua. Herri kirolei lotutako erronka ugari egiten dituzte han, baita kontzertuak eta bestelako kultur ekitaldiak ere. Horretarako, probalekua areto bilakatzen dute, lurra estaliz.

Izan ere, 2017an, probalekuari beste erabilera batzuk ere eman nahian, Aiako Udalak espazio hori egokitzeke lanei ekin zien: ate berria jarri, zoru muntagarria prestatu, isolamendu akustikoa egin, argiteria berritu... Horrela, espazio hori, probalekua ez ezik, aretoa ere bada gaur egun. Eman nahi zaion erabileraren araber, itxura bat edo bestea hartzen du.



Aizarnazabal

Aizarnazabalgo plazan, udaletxearen aurrean, dago herriko probalekua, frontoian integratuta. Betidanik izan da probalekua herrian, eta idi dema ugari ikusteko aukera izan dute herritarrek. 2006an, idi proben ohitura kolokan izan zen, eta horrekin batera, probalekuaren izaera ere zalantzan jarri zuten zenbaitek. Dena den, Aipe Aizarnazabalgo probalarien elkarteak sortu zuten, eta hura arduratzen da ordutik demak antolatzeko. Gainera, herrian bertan ere badituzte idiekin aritzen direnak.



Azkoitia

Gurea pilotalekuan idi dema ugari egiten dira oraindik, eta probalekuan jende ugari elkartzen da halakorik egiten duten bakoitzean. Eskualdeko plazarik garrantzitsuenetakoa da.



Azpeitia

Berezia da Azpeitiko probalekua, zezen plazaren azpian gordeta baitago. Dena den, horrek erakusten du, zezenak toreatzeko ez ezik, beselako herri kiroletarako ere ederki prestatuta dagoela Azpeitiko zezen plaza. Zezen plazak ehun urte bete zituenean erabili zuten azkenengoz probaleku hori idi probetarako, baina pentatloi probetan ere baliatu izan dute, giza proban aritzeko.



Zestoa

Zestoako plazatik igaro den orok nabaritutako zuen galtzada harriz osatuta dagoela gunea; hara ez dago oinetako aldrebesekin bertaratzerik, inork estropezu egin nahi ez badu behintzat. Plaza historikoa da Zestoakoa, eta besteak beste, *Arriya* filma grabatzerakoan lokalizazio gisa baliatu zuten gunea. ■

2018. urtean hasi zen Jon Ander de la Hoz herri kiroleko kazetari lanetan. Ordutik, ehunka txapelketatan, apustutan eta erakustalditan egon da. Herri kirolak deskubrimendu "ederra" izan direla aitortu du.

"NAHIAGO DUT PENTATLOIKO FINALA IKUSTERA JOAN, TXAPELDUNEN LIGAKO FINALA IKUSTERA JOAN BAINO"

Jon Ander de la Hoz
KIROL KAZETARIA

Testua eta argazkiak: **Ekaitz Etxabe.**

Andres Osa *Sakona* kazetariaren erreleboa hartuta hasi zen herri kirolen inguruko kazetaritza egiten Jon Ander de la Hoz (Getaria, 1992). Euskadi Irratian eta beste hainbat hedabidetan aritu da lanean azken urteotan, eta herri kirolen mundua gertutik ezagutu du. Arraunlari eta kirolzale amorratua izanik, herri kirolen munduarekin "harrituta" jarraitzen duela adierazi du.

Nolatan hasi zinen herri kirolen inguruko kazetari lanetan?

2018an erretiroa hartu zuen Andres Osa *Sakona* kirol kazetariak, eta Euskadi Irratiko kiroleko zuzendariak, Txetxu Urbietak, haren erreleboa har-

tuko al nuen proposatu zidan, batez ere herri kirolekoak. Kazetaritza ikasketak egindakoa naiz, eta ordurako Euskadi Irratian aritzen nintzen lanean.

Hasi zinenean ba al zenuen herri kirolekin harremanik ala lanak eraman zintuen mundu horretara?

Batez ere, lanak eraman ninduen herri kirolek, eta gaur egun, oraindik ere, ez naiz erabat aditua sentitzen. Izan ere, kazetaritza ikasi nuen, eta gerora kirolari buruz aritzea tokatu bazait ere, ez neukan harreman zuzenik mundu horrekin. Dena den, betidanik gustatu izan zait herri kirolak ikustea, eta figura handienak

ezagutzen nituen. Gero, denborarekin, jendea ezagutu dut, eta gehiago murgildu naiz mundu horretan.

Herri kirolen esparruan sar-tzearekin, zerk harritu zintuen gehien?

Harritu ezerk ere ez. Banekien gutxi gorabehera euskal kulturari estuki loturiko mundu bat zela, eta horixe frogatu dut. Horrez gain, ikusi dut kirolari peto asko dagoela, bai-na hori ere espero nuen, egia esan. Oro har, kirolak badu teknologiarri lotuta egoteko joera, kronometroari lotuta egotekoa, eta, akaso, hori izan da gehien harritu nauena: gauzak zehatz-mehatz neurtuta



dituztela; pisuak, denborak... dena. Banekien herri kirola ez zela folklorea, eta hori frogatu dut.

Gogoratzen al duzu zein izan zen herri kirolean egin zenuen lehen lan nabarmenena?

Herri kirolean hasi orduko Europako edo Munduko sokatira txapelketak izan ziren. Euskal Herritik urrun izan ziren, eta euskal kirolariekin hartu-emana izatea ez zen erraza izan. Sokatirarekin ez nuen aparteko harremanik orduan, eta kontaktuak egin behar izan nituen. Eskerrak Sakonak lagundu zidan, galdu samartuta ibili bainintzen. Oraindik ere, zenbaitetan hala sentitzen naiz,

baina kirolariek eta ingurukoek izugarri lagundu izan didate, eta hori azpimarratzekoa da. Horrez gain, Iker Vicentek eta [Xabier Orbegoza] Arria V.ak Tolosan igande eguerdi batez jokatu zuten apustuarena da oroitzen dudana beste egun handi bat. Han izan nintzen, eta hura izan zen bertatik bertara jarraitu nuen lehen hitzordu garrantzitsua, 2018ko urrian Iruñean jokatu zuten Euskadiko Aizkolari Txapelketaren finalarekin batera.

Herri kirolak lantzerakoan, zeintzuk dira erronka handienak?

Ikusgarritasuna. Argi eta garbi. Egia da azken urteetan herri

kirolen gorakada izan dela, baina ez da futbolaren edo txirrindularitzaren parekoa. Udan arraunak duen tiradatik ere dezente urrun daude herri kirolak. Horregatik, eman egin behar zaio ikusgarritasuna. Batez ere, kontuan hartu behar da herri kirolak ez direla soilik aizkora, harri jasotzea eta sokatira; federazioaren barruan diziplina ikaragarri daude. Aitortzen dut guri ere kostatu egiten zaigula zenbait diziplinataria iristea, eta erronka nagusia horixe izango litzateke: denei lekua egitea. Ikusten da jende ugari mugitzen dutela herri kirolek eta horien bueltako zaletasun handia dagoe-

la, baina komunikabideetan agian ez dute merezi duten adinako oihartzuna.

Zure ustez, herri kirolek ez daukate behar adinako lekukirik gaur egungo euskal kartzaritzan?

Ez. Leku gehiago izan behar lukete, batez ere, oso gurea den zerbaite delako. Sokatira, esaterako, mundu osoan egiten da, nahiz eta oso gurea den. Kirol horren bueltako lehen lekukotzak oso aspaldikoak dira, eta Euskal Herriatik urrunekoak. Oso hedatuta dago sokatira, baina oso gurea da aldi berean. Gainera, Euskal Herrian lorpen handiak izan dira sokatiran; Gaztedirenak eta Beti Gazterenak, esaterako. Kontuan hartu beharreko talde asko daude, kirol asko ere bai, eta gureak izanik, zaindu egin behar ditugu.

Gaur egungo erronka nagusia ikusgarritasuna dela aipatu duzu. Horrek lotura izan al dezake belaunaldi berriekin?

Posible da. Mallabiko [Bizkaia] zelaitarrek sortu dute herri ki-

rola kaleratzeko modu bat, crossfitarekin lotuta. Sare sozialek ere saldu egiten dute. Esaterako, duela pare bat urte Martins Licis etorri zen Abadiñora [Bizkaia] harria probatzera; sare sozialen amorratua da. Paulo Azpiazu ere hala da. Mikel Lopetegui *Urra*, bestalde, ez da izango halako kontuetan abilena, baina askotan ikusi dugu hura ere sare sozialetan harria jasotzen. Eduki hori iritsi egiten da publikoarengana, eta erakargarria da onenak sare sozialetan ikustea.

Sare sozialen eta komunikabide digital berrien garaian, nola aldatu da herri kirolak tratatzeko modua?

Kirolariak eta horien ingurukoak molde berrietara egokitzen ari dira. Bere garaian ere egin zi-

ren saiakera batzuk, eta gaur egun badaude sare sozialetan oso sartuta dauden herri kirolari batzuk. Horiek, askotan, dibulgazio lana egiten dute: Andoni Iruretagoiena *Izeta*-k, Xabat Olaizolak... Jende gaztea da, sare sozialak ezagutzen dituen. Lan handia ari dira egiten herri kirolen presentzia areagotzeko.

Herri kirolen ikusgarritasuna handitzeko gako izango al dira aurrerantzean sare sozialak?

Bai, baina gaur egun, sare sozialak herri kirolekin ez ezik, denean dira gakoak. Esaterako, maratoi bat egiten baldin baduzu, baina ez baduzu sare sozialetan argitaratzen, egin izan ez bazenu bezala da. Triste da, baina horrela da. Herri kirolen goraldia sustatzeko oso tresna egokiak iruditzen zaizkit sare sozialak, gizarteko edozein gauzetarako ere hala direlako.

Kirolzalea eta arraunzalea zara. Sekula parte hartu al duzu herri kirolen munduan?

"Kirolariak eta horien ingurukoak molde berrietara egokitzen ari dira"



Bai, 2011. urtean. Garai hartan giza probak oso modan zeuden, eta ni arraunean ibiltzen nintzen, Getariako traineruan. Nola edo hala erronka bat sortu zen, eta Getariako bost arraunlari eta hiru getariar aritu ginen Orioko giza proba taldekoen aurka. San Anton festetan egin genuen apustua, Getarian. Galduegin genuen, plaza baten aldearekin. Lan ederra egin genuen, itsasoko entrenamendua ere lagun baikenuen, eta gustura aritu ginen. Dena den, konturatu ginen halakoak ez zirela guretzat, eta itsasoan hobeto moldatzen ginela [barrez].

Arraunaren eta herri kirolen artean antzekotasunik ikusten al duzu?

Bai. Gaur egun harreman handiena dudan herri kirola aizkora da, zale gehien ere kirol horrek erakartzen duelako. Hainbat aizkolarirekin daukat harremana, eta ikusi dut zer nolako entrenamenduak egiten dituzten: erritmoa, bihotz-maiztasuna, denborak, pisua... Batez ere arlo horretan ikusten

diet herri kirolei arraunarekin lotura.

Herri kirolen inguruan lan egiterakoan, zer da gehien gustatzen zaizuna?

Jendea, dudarik gabe. Asteazkenean zehar hainbat gai jorratzen ditugu erredakzioan, eta editoreak herri kirolak lantzeko esaten didanero, irribarrea ateratzen zait, izugarri gozatzeko baitut. Hori, hein handi batean, jendeagatik da. Herri kirol munduko jendea oso eskertua da. Euskadi Irratian herri kirolei tarte handia ematen saiatzen gara, eta bueltan jasotzen dugu emandako guztia. Beti ateak irekita izaten dituzte guretzat, eta asko laguntzen digute; dituzten pasioa eta grina izugarria dira. Zentzu horretan, futboleko Txapeldunen Ligako finala ikustea baino nahiago dut pentatloiko finala ikustea. Herri kirolean lanean hasi nintzenean, kazetari batek esan zidan kontuz ibiltzeko, herri kirolen mundua oso itxia zelako eta gerra ugari egoten

zirelako, baina niri oraindik ez zait horrelakorik bizitzerik tokatu. Oso-oso gustura aritzen naiz. Hori bai: araudia ikasi egin behar izan dut, ondoren erakusteko, eta dakienari entzun ondoren saiatzen naiz besteei erakusten. Eta jendearekin liluratuta nago: izen batzuk esatearren, Joseba Otaegik, Ugaitz Mugertzak, Julen Alberdi Txikiak, Mikel Larrañagak, Aitzol Atutxak, Iker Vicentek, izetatarrek, Joseba Ostolazak, Belamendik, Iñaki Irulegik... Izugarri lagun du eta afizioa sorrarazi didate horiek.

Zer-nolakoa da herri kirolen egoera orokorra Euskal Herrian?

Duela bi urte bikotekidearekin Ipar Euskal Herrira joan nintzen bi egun pasatzera. Bidarten ginela, astelehen gau batez, herri kirolak zeudela ikusi genuen. Joan egin ginen eta frontoia gainezka zegoen. Egia da Paristik eta Frantziako Estatuko beste hainbat lekutatik ere joan ohi dela jendea hala-



sidenor
steel

Bertako kirolarekin!

www.sidenor.com



ko hitzorduetara, baina asko harritu gintuen hainbeste jende ikusteak. Asteazken zehar hainbat erakustaldi egiten dira toki desberdinetan, eta jendea mugitzen da horietara. Ez dakit zaletasuna al den, baina ikusgarritasuna behintzat badago. Hego Euskal Herrian ere gazte eta emakume asko sartu da herri kirolen mundura. Ikaragarria da hori, eta horrek izugarritzko indarra ematen die herri kirolei. Iruditzen zait Euskal Herrian herri kirolak ari direla bidea egiten, eta hala jarrai dezan nahiko nuke, batez ere, gure eskualdeko dinamika.

Emakumeen presentzia gero eta handiagoa da herri kirolatan. Nola bizi duzu hori kazetari izanik?

Pozik. Nabarmendu beharrekoa da eskola desberdinek egin duten lana harri jasotze, sokatira... arloetan. Kasu batzuetan segida egon ohi da, eta beste batzuetan ez, eta

agian, hori da gakoa; segida izatea lortu behar da. Azken urteetan sumatzen da jendea gogotsu dagoela, eta emakumeak tartean egoteak goratu egiten duela kirola. Horrek beste indar bat ematen dio herri kirolari.

Herri kirolen munduak zer beharko du datozen urteetan indartsu jarraitzeko?

Babesa. Izan ere, ez dira kirol merkeak. Hasteko, material aldetik oso garestiak dira. Bestalde, kirolariek kilometro asko egiten dituzte errepidean, ikaragarri. Horretan laguntzeko babesleak lortzea komunikabideen lana izaten da askotan, eta horretan, agian, hedabideek badute erantzukizuna. Badaude ederki laguntzen duten enpresak ere, eta horiek asko ikusten dira kirolarien arropetan. Bultzada emateko denon beharra dagoela uste dut.

Zer egin daiteke kazetariak herri kirolak lantzera bultzatzeko?

Askotan pentsatu dudana gauza da. Ahalik eta goren iristea izaten da askotan gure helburua; askok edozer emango lukete futboleko Txapeldunen Ligako finalean egoteagatik, esaterako. Niretzat, hori ez da erakargarriena. Horretarako milaka lagun daude prest, baina herri kirolerarako, aldiz, ez. Benetan diot: oso mundu polita da herri kirolena. Duela zazpi urte hasi nintzen herri kirolatan, eta harrituta nago oraindik ere. Merezki duen zerbait dela iruditzen zait, ondoan daukagun zerbait, altxor bat. Kazetari gazteak pausoa ematera ausartzen baldin badira, seguru nago ez direla damutuko. Deskubrimendu eder bat izan dira herri kirolak niretzat, eta edozeini gomendatuko nioke mundu horretan barneratzea. ■

GUKA KIDE

al zara?

Gukakide, Gukaren bazkidetza formula da.

Komunitate zabala eraikitzen jarraitu nahi dugu, euskaraz eta herrigintza sustatuz ahal dugun neurrian. Horretarako, herritarren eta eragileen babesa eta atxikimendua behar-beharrezkoak ditugu.

egunkaria
paperean

95€
URTEAN

aldizkaria
paperean

60€
URTEAN



digitala

52€ URTEAN

Papereko eskaintzek digitala barne dute.

abantailak

- Papereko argitalpenak etxean, Gukakide digitalak izan ezik.
- Argitalpenak digitalki eskuragarri.
- Guka aplikazioan bazkideentzako txokoa.
- Zozketak eta lehiaketak.
- Ekitaldiak.
- Deskontu sarea.
- Argazkiak eta bideoak deskargatzeko aukera.



HERRI KIROLAK ERRAZUREN KAMERAREN BISORETIK

Herri kiroleko edozein ekitalditako ikusleen artean maiz aurkitu daiteke Ibon Errazu (Azkoitia, 1979). Argazki kamera lepotik zintzilik duela, bere begietatik ikusten duena irudietan hartu izan du urteetan zehar. Urte horietan guztietan milaka argazki atera baditu ere, zortzi gogokoenak edo berezienak hautatu ditu.



AURRENENGOETAKOA

Azkoitiko Urrategi auzokoa da Errazu, eta bertan atera zuen lehenengotariko argazkia. Uztaileko bigarren igandean ospatzen dituzte festak auzo horretan, eta urtero-urtero herri kirol erakustaldia antolatzen dute. 2004. urteko jaialdi hartan Juan Joxe Unanue *Goenatxo II.*ak parte hartu zuen, Urrategikoa hura ere. "Nire auzoko jaiak izanik, bertan atera nituen herri kiroletako lehenengo argazkiak, Urrategiko jaien berri eman nahian", esan du Errazuk argazkiaz.



KIROLARIEI LAGUNTZA

Juan Iguaran eta Luis Mari Bengoa. Bata zein bestea oso garrantzitsuak izan dira herri kirolarien-tzat, eta horregatik atera zien Errazuk argazkia, Oianume sagardotegian. "Juanek ezkutuan egin zuen lana, eta Luis Marik, aldiz, gazteei bideak zabaldu dizkie txapelketa ugari antolatuz", adie-razi du azkoitiarrak.



OHOREA

Kirolari asko ezagutzeko aukera izan du Errazuk urte hauetan guztietan, baina Iker Vicente aizkolaria du gogokoenetarikoa, duen profesio-naltasunagatik: "Niretzat ohorea da Vicente gertutik ikusteko aukera izatea, aizkorarekiko duen barneko grinagatik eta kirolari eskaintzen dion guztiagatik".



DOTOREZIA

Azpeitiko zezen plazak Euskal Pentatloi Sariaren kanporaketa eta final ugari hartu ditu, eta horietako gehienetan izan da azkoitiarra. 2022ko irailean jokatu zen finaleko irudia da goikoa, Nerea Arruti kirolaria ageri dena. Errazuren iritziz, kirolari "dotorea" da Arruti: "Beste kirol batetik iritsi arren, herri kirolari konpletoa da, eta batez ere, bere buruarekin zorrotza".



IRAGANA MANTENTZEN

Idi dema ugari egiten dira oraindik Azkoitiko Gurea pilotalekuan, eta Errazuk gustuko ditu tradizioa eta herria batzen diren une horiek: "Inguruko adinekoei askotan entzun izan diet idi demena garai bateko baserriko lanetatik datorren tradizioa dela. Adineko horiek entzutea gozamena izan da beti niretzat, horrela ezagutu ahal izan baititut Azkoitiko idi demetako kontuak eta herrian jokatzeko ziren apustuen inguruko istorioak".



URA BERE BIDERA

COVID-19aren pandemiak eragina izan zuen aizkoraren munduan ere, eta zentzu horretan gauzak "okerrera" joan ziren arren, denborarekin, bere onera itzultzen ari dela uste du Errazuk. Hala ere, badu pena bat: "Azken lau urteetan egungo aizkolari onenak ez dira hitzordu beraren bueltan elkartu. Dena den, aizkoran jarraitzen dute guztiek, eta poztekoa da hori".



MUNDUAN ZEHAR

Herri kiroletan 18 modalitatetan jarduten dute kirolariak. Horiek sarritan elkarren kontra jarduten dutela dirudien arren, familia txiki bat osatzen dute munduaren aurrean eta gainontzeko kirol guztien artean. Horren adierazle izan zen joan zen abuztuan izan zen Boiseko Jaialdia (AEB); izan ere, han izan ziren herri kirolari hainbat, baita Errazu ere. Haren hitzetan, "laguntzen" aritu zen, uste baitu denek elkarrekin egin behar dutela aurrera.

ETORKIZUNA

Errazuk 2022an ezagutu zuen Malen Barrenetxea aizkolari gaztea. Ordutik herri kiroletan etorkizunik badela uste du azkoitiarrak, izugarrizko planta erakutsi zuelako: "Arreta piztu zidan egun hartan, zuen gazetetasunagatik eta erakutsi zuen jarreragatik. Zeresana emango du, jarraitzeko amoa baldin badu eta lesioek uzten baldin badiote, behinik behin". ■



MENDIZABAL, HERRI KIROLAK SU BAXUAN

Azpeitiko Landeta auzoko Mendizabal erretegia herri kirolen gordeleku bihurtu da azken urteetan. Martin Mendizabal nagusiak herri kirolekiko duen zaletasunaren aitzakian, hamaika apustu adostu izan dituzte bertan.

Tolosako Cantabrico taberna leku mitikoa da pilotaren eta herri kirolen bueltako apustuak adosteko. Izan ere, urtez urte, askotariko apustu ugari egin izan dituzte han. Ez dago maila berean jartzerik, baina Azpeitiko Mendizabal erretegian ere makina bat apustu kozinatu izan dituzte. Parrilan txuletak erre nola, mahaiaren bueltan apustuak egosten dituzte.

Azpeitian, garai batean, Pastorkua tabernan hitzartzen zizuten apustuak, baina, azken urteetan Landeta auzoko erretegian egin izan dituzte halako zitak. "Leku aldaketaren zergatia azaltzen ez dakit; ziurrenik biltzeko gune eta puntu bezala ikusten dutelako izango da. Gainera, erretegiaren publikitatea jarri izan dut herri kirolen bueltako ekitaldie-

tan-eta, eta giro horretan ibiltzen den jendea etortzen da gura. Horrez gain, apustua egiten dutenek jokoan jartzen duten dirua jasoko duen eta apustuaren egunera arte gordeko duen norbait behar izaten dute", azaldu du Martin Mendizabal erretegiaren jabeak.

Arrazoi horiek tarteko, herriarren dagoeneko ohituratat hartua dute apustuen nego-





ziaziorako hitzorduak Mendizabalen jartzea. Hala uste du nagusiak: "Ingurukoek, behintzat, gurera jotzen dute, aurrez ere halako hitzorduak bertan eginak garelako. Dena den, ezin dira Mendizabal eta Cantabrico alderatu. Izan ere, Tolosako tabernara sartzea nahikoa da duen historiari ohartzeko; apustuen bueltako argazki pila bat dituzte han". Desberdintasunak bai, baina antzekotasunak ere badituzte bi topalekuek: bien nagusiak herri kirolen zale amorratuak dira.

Askotariko apustuak

Erretegiko paretan artean adostu diren hamaika apusturen eta erronkaren artean, Mendiza-



MENDIZABAL

AZPEITIKO ERRETEGIA

HERRI KIROLEKIN



Landeta Hiribidea, 16 - AZPEITIA - 943 81 20 01

balek baditu batzuk besteak baino gogokoagoak, eta horren arrazoiak aletu ditu: "Gurean adostu den apustu serioena, agian, Joseba Otaegik eta Xabier Orbegoza *Arria V.* ak egindakoa izango da: hogeik kana erdiko moztea hitzartu zuten. Apustu oso ona izan zen, eta gainera, oso marka ona egin zuten. Izan ere, *Arria V.* ak 40 minutu azpitik ebaki zituen kana erdikoak, eta ondorioz, azken 25 urteetan ia inork lortu ez zuena erdietsi zuen".

Aipatzekoa iruditzen zaio, era berean, Alex Txikon mendigoizaleak eta Mikel Larrañaga aizkolariak 2017an egin zuten apustua ere. Txikonek bota zion desafioa Mikel Larrañagari, eta jokoan 7.000 euro jarri zituzten. Apustuan harri jasotzen, aizkoran eta korrika aritu ziren. "Lan zaila izan zen hura; izan ere, ehun kiloko zilindroa altxatu, aizkoran jardun eta korrika egin behar izan zuten. Hori dena asko da pertsona batek egiteko; oso pertsona konpletoa izan behar duzu horretarako, denera ondo moldatzen dena. Apustua oso garrantzitsua izan

zen, nahiz eta gero ikuskizuna ez zen oso ona izan".

Mendizabalen apustuak hitzartu dituzten kirolarien artean, ordea, bada faltan sumatzen duen bat: Iker Vicente. "Gustura hartuko nuke erretegiaren apusturako hitzorduren bat. Gaur egungo aizkolaririk onena izanda, ederra izango litzateke Azpeitiko edo inguruko norbaiti desafioa botatzea eta hori Mendizabalen adostea. Harri jasotzaileei dagokienez, berriz, gustatuko litzaidake punta-puntan dauden Paulo Azpiazu eta Mikel Lopetegi *Urra* gurera etortzea. Beti esaten dugu, eskola desberdinetakoak izan balira, honezkero apusturen bat eginak izango liriatekeela, baina Izetaren eskolakoak dira biak, eta... Ezinezkoa ikusten dut haiek elkarren aurka aritzea, baina gustura hartuko nuke halakorik! Izan ere, horien arteko apustua gogorra izango litzateke eta plaza beteko lukete".

Zaletasuna

Mendizabalen aita eta osaba zirenak herri kirolariak izan ziren, "oso-oso onak gainera",

harri jasotzen eta aizkoran. Dena den, Mendizabalek ez zituen jardun horretan ezagutu: "Nik aita ez dut harri jasotzen sekula ikusi", esan du. Bera ere ibilia da herri kirole-tan, Pedro Mari Egaña *Min-txeta* elgoibartarrari esker murgildu baitzen mundu horretan. "Probatzeko esan zidan, eta horrela, poliki-poliki, 18 urterekin ehun kiloko zilindroa altxatzera iritsi nintzen. Serio hartu beharreko gauza da, ordea, zenbakiak edo markak egin nahi izanez gero, eta... Harria, sega eta aizkora probatutakoa naiz".

Gutxik dakitena eta beste gutxik gogoratuko dutena, ordea, zera da: Mendizabalek apustua jokatu zuela probatzen jardun zuen garai hartan. 2006. urtea zen, eta kuadrillako beste hiru lagunekin batera jokatu zuen desafioa Elosiaga auzoko larreetan. 22 urte zituzten denek, eta aizkoran eta segan jardun zuten, bi lagunek beste bien aurka: bost kana erdiko moztu behar izan zituzten, eta gero, ordubetez segan jardun, nork belar kilo gehiago ebakiko. "Geure artean hasi ginen zerbait egin



behar genuela hitz egiten, eta horrela sortu zen desafioaren ideia. Txantxetan hasi ginen, baina oso serio amaitu genuen, eta sei hilabetez jardun genuen ahalik eta ondoen prestatzen: prestatzaile onenekin aritu ginen; pentsa, segalari onenetakoa izandako Juan Manuel Erasunek irakatsi zigun segan. Pentsa zeinen serio hartu genuen, apustura 2.000 bat lagun joan baitziren. Izugarria izan zen", esan du hark atzera begira jarrita.

Lau lagun haietako inork ez du herri kirolen munduan bidea egiten jarraitu, baina Mendizabalek urtero parte hartu izan du Landetako San Eloi festetako herri kirol erakustaldian, aizkoran edo harri jasotzen, eta 2019an erronka pertsonal bat jarri zion bere buruari: 200 kiloko errektangularra altxatzea. Gainera, Asteasun jokatu zen txapelketa batean ere izan zen urte hartan, eta harri hura altxatzeko lau saiakera egin zituen: "Altxaldi bat nire ustez bale-

koa izan bazen ere, denak baliogabetu zizkidaten. Beraz, harri hura jaso izan ez banu bezala gelditu nintzen. Dena den, entrenamenduetan behin baino gehiagotan altxatu nuen harri hura".

Etorkizuna

Mendizabalek lotura zeharo estua du herri kirolekin, eta askotan lagundu izan die herriko eta inguruetako kirolariei. "Ni laguntzen eta tentatzen saiatzen naiz, baina horretan jarraitzea eta lan onak egitea beraien esfortzuaren fruitua da; izan ere, herri kirolen mundua oso zaila eta gogorra da". Gaur egun, Urola Kostan herri kirolari onak badirela aitor-


tu du hark, baina etorkizunarekin "zertxobait" kezkatuta agertu da. Hala eta guztiz, kirolari batzuei hartzen die etorkizunean puntan ariko diren traza. Bi harri jasotzaile aipatu ditu: Haritz Aranguren *Norde* azkoitiarra eta Olaia Esnaola azpeitiarra. Dena den, etorkizunera begira, ez du oso argi ikusten herri kirolen etorkizuna gainerako modalitateetan: "Etorkizun zaila ikusten diet herri kirolariei, eta egia esan, ez dakit zer egin daitekeen horren aurrean; agian, eskola bat sortu behar da Azpeitian eta inguruetan. Gaur egun puntan diren kirolariak jardunari uzten diotenean, hilik geratuko da Azpeitia zentzu horretan, etorkizunik eta erreleborik ez baitago".

Etor daitekeen hori iristerako aldatzen saiatu bitartean, Mendizabal erretegia herri kirol hitzorduak egosten jarraituko dute, eta haren jabeak horretan lagunduko du, herri kirola bera eta kirolariak zainduz eta babestuz. ■

BERAZADI BERRI ERRETEGIA



Berazadi Berri 723 Talaimendi, Zarautz
943-83 34 94 | 667 75 02 13
info@berazadiberri.eus | www.berazadiberri.eus



NIK

hik, hark, denok

GUKA EGITEN DUGU



Maddi Gesalaga / Harri jasotzailea

Zarautz

ZUK ERE EGIN GUKA *egin bazkide*

Guka independentea da
eta komunitatean du
oinarria. Herritik eta
herriarentzat sortua izanik,
aurrera egiteko, guztion
babesa eta lankidetzaz
ezinbestekoak dira.

GUKA

Eskaneatu QR-a, eman zure babesa



talleres AiA



Multimarkak



Klimatizazioa



Elektrizitatea



Balaztak



Injekzioa



Mantenimendua



Mekanika orokorra



Pneumatikoak



IAT zerbitzua: IAT aurrekoa, autoa eraman eta jaso...



Mekanika azkarra



Diagnosia




Ihes kanalizazioak



Bizkaia kalea, 69 · ZARAUTZ

943-83 46 18 · 639 51 80 24 · electricidadai@gmail.com



LEIHOAK.com
eta toldoak



www.leihoak.com

943 002 275 - 619 432 079

leihoak@leihoak.com

Leihoen eta toldoen erakusketa Zelai Ondo, 23 | **ZARAUTZ**